

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

LURRALDE GARAPEN JASANGARRIRAKO ARLOA

Azpiarloa: Hiri Garapena

Zerbitzu-Unitatea: Hirigintza

ZV34 seigarren etxebizitza-eremuko AR2 partzelako (Goikoplaza) B1 eraikinaren xehetasun-azterketa, Visesa SA enpresaren izenean aurkeztua

Denon ezaguerarako jakinarazten da udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urtarrilaren 17an egindako bilkuran hartu duen erabakiko xedapenenen atala:

“LEHENENGOA. Hasierako onespina ematea ZV34 seigarren etxebizitza-eremuko AR2 partzelako (Goikoplaza) B1 eraikinaren xehetasun-azterketari. Miguel Ángel Díaz Iturriaga, Elena Chávarri Burguete, Andrés Tabera Roldán eta Pedro Apaolaza Martínez de Musitu arkitektoek idatzi zuten xehetasun-azterketa, eta 2024ko urriaren 9an Visesa SA enpresaren izenean aurkeztu zen dokumentazio teknikoa (sarrera-erregistroko 15600 zenbakia).

Hala ere, hobetu beharreko zenbait alderdi antzeman dira, behin betiko onartzeko dokumentuan zuzendu beharrekoak:

(...)

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea, iragarkia argitaratuta udaletxeko ediktuen taulan edota iragarki-oholean, ALHAOn eta Araban gehien saltzen diren egunkarietako batean, hogeit (20) egunez, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA. Adierazi behar da, jendaurreko informazioaren emaitza ikusitakoan, alegazio posibleei erantzun ondoren, Udalbatza honek behin betiko onespinari buruzko ebazpena emango duela”.

Espedientea kontsultatu nahi izanez gero, Lurralde Garapen Jasangarrirako Arlora joateko aukera dago (Herriko Plaza zenbaki.gabe., 3. solairua), egun baliodunetan, 8:30etatik 14:00etara.

Laudio, 2025eko urtarrilaren 23a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ